

AENOREk KUTXABANK TALDEARENTZAT egin egiaztapen deklarazioa, 2018ko abenduaren 31n amaitutako urteko ekitaldiari dagokion informazio ez-finantzarioaren egoera-orri bateratuari buruzkoa, 11/2018 Legearekin bat egina

ESPEDIENTEA: 2018/0599/GEN/03

KUTXABANK TALDEAK (aurrerantzean Konpainia) informazio ez-finantzarioaren egoera-orria (aurrerantzean IEFE) ziurtatze maila txiki batez egiaztatzeko lana egiteko enkargua eman dio AENORi, betiere bat etorriz 11/2018 Legearekin, zeinaren bitartez aldatzen diren Merkataritza Kodea, Kapital Sozietateen Legearen testuategina –uztailaren 2ko 1/2010 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartua– eta Kontu Auditoretzaren uztailaren 20ko 22/2015 Legea, informazio ez-finantzarioari eta aniztasunari buruzko informazioari dagokienez (aurrerantzean 11/2018 Legea). Egiaztapenaren epeak Konpainiaren jarduerak hartuko ditu, 2018ko abenduaren 31n amaitutako urteko ekitaldikoak zehazki, hots, Deklarazio honen parte den 2019ko otsailaren 25eko IEFE, KUTXABANK TALDEAREN JASANGARRITASUN MEMORIA 2018 INFORMAZIO EZ-FINANZARIOAREN EGOERA deituan jasoak.

AENOREk, aipatu legearekin bat, egiaztapen lan hau egin du, egiaztapen zerbitzuen emaile independentea baita.

Ildo horretatik AENOREk, egiaztapen hau egiteko unean, eta dituen akreditazioen indarrez, jarraitu egin ditu horrelako jardueretan eskatzen diren osotasun, independentzia, etika, objektibotasun, gaitasun eta ardura profesional, konfidentzialtasun eta portaera profesional irizpideak, eta une oro jardun du bai ISO/IEC 17021-1:2015 eta ISO 14065 Arauen aplikazio esparru orokorren barnean bai aplikazio esparru partikularren barnean, tartean baita Klima Aldaketarako Nazio Batuen Konbentzioak emandako akreditazioak (UNFCCC), Garapen Garbiko Mekanismoetarako (GGM) proiektuak egiaztatu eta balidatzekoak, ezarria.

AENOREk, aipatu legeak eskatu moduan, adierazten du ez duela parte hartu IEFEaren egiaztapenaren aurretiko inolako prozesutan.

Erakundearen datuak: KUTXABANK TALDEA

Egoitza soziala: KALE NAGUSIA, 30 – 4. solairua

48009 BILBO

Erakundearen ordezkariak, informazio ez-finantzarioaren egoeraren ondorioetarako: Endika Ruiz de Zarate jn., Komunikazio, EGE, Berdintasun eta Hizkuntza Kudeaketako zuzendari gisa.

KUTXABANK TALDEAREN erantzukizuna izan zen informazio ez-finantzarioaren egoera-orriaren berri ematea, 11/2018 Legearekin bat.

Helburua

Egiaztapenaren helburua da alderdi interesdunei iritzi profesional eta independentea ematea, erakundearen informazio ez-finantzarioaren egoera-orrian jasotzen diren informazio eta datuei buruz. Egiaztapen horrek 11/2018 Legearen arabera egina izan behar du.

Egiaztapenaren irismena

KUTXABANK TALDEA, 2019ko otsailaren 25eko IEFE, KUTXABANK TALDEAREN JASANGARRITASUN MEMORIA 2018 INFORMAZIO EZ-FINANTZARIOAREN EGOERA deituan sartua, eta ondoren zerrendatzen diren eta egoera bateratuetan jasotako sozietateak:

KUTXABANK, S.A.

CAJASUR BANCO, S.A.U.

FINECO TALDEA

FINECO SOCIEDAD DE VALORES, S.A.

GIIC FINECOS.G.I.I.C., S.A.U.

FINECO PATRIMONIOS S.G.I.I., S.A.U.

FINECO PREVISION E.G.F.P., S.A.U

KUTXABANK GESTION SGII S.A.U.

NORBOLSA SOCIEDAD DE VALORES Y BOLSA S.A.

KUTXABANK EMPRESITOS, S.A.U.

KARTERA 1, S.L.

HARRI TALDEA

HARRI HEGOALDE 2, S.A.U.

HARRI IPARRA, S.A.U.

HARRI SUR ACTIVOS INMOBILIARIOS, S.A.U.

HARRI INMUEBLES S.A.U.

CIA PROMOTORA DEL ESTRECHO S.L.

YERECIAL S.L.

BINARIA XXI, S.A.

INVERLUR GESTIÓN INMOBILIARIA I S.L.

SEKILUR S.L.

GOLF VALLE ROMANO S.L.

GPS MAIRENA EL SOTO S.L.

VIANA ACTIVOS AGRARIOS S.L.

KUTXABANK ASEGURADORA, S.A.

KUTXABANK VIDA Y PENSIONES, S.A.U.

GESFINOR ADMINISTRACION, S.A.

Materiala

Egiaztapenera begira, erabaki zen desadostasun material jotzea kuantifika daitezkeen eta aitortutako guztiarekiko % 5etik gorako aldea eragin dezaketen omisioak, distortsioak edo akatsak.

Irizpideak

Egiaztapena egiteko erreferentzia hartu diren irizpideak eta informazioak honakoak izan dira:

- 1) 11/2018 Legea, abenduaren 28koa, zeinaren bitartez aldatzen diren Merkataritza Kodea, Kapital Sozietateen Legearen testu bategina –uztailaren 2ko 1/2010 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartua– eta Kontu Auditoretzaren uztailaren 20ko 22/2015 Legea, informazio ez-finantzarioari eta aniztasunari buruzko informazioari dagokienez.
- 2) ISAE 3000 araua (berrikusia), ziurtapen desberdinetarako enkarguei edo finantza-informazio historikoaren berrikuspenari buruzkoa.
- 3) GRI estandarrei jarraiki jasangarritasun txostenak aurkeztearren mundu mailako ekimenez ezarritako irizpideak, erakundeak nazioarteko esparru horretara jo duenean bere gizarte erantzukizun korporatiboarekin lotutako informazioari zabalkundea emateko.

AENORek berariaz adierazten du ez duela inolako erantzukizunik hartuko bere gain, deklarazio honetan oinarriturik hartzen diren inbertsioko edo beste edozein motatako erabakien gainean.

Gauzatutako egiaztapen prozesua

Ziurtatze maila baxu batez gauzatutako egiaztapen prozesuan zehar, AENORek elkarrizketak egin zizkien informazio ez-finantzarioa biltzeko eta horri dagokion egoera-orria prestatzeko ardura duten langileei, eta zenbait ebidentzia berrikusi zituen, honakoak zirela horien gai:

- Erakundearen jarduerak, produktuak eta zerbitzu emanak.
- Eskainitako informazioaren sendotasuna eta trazabilitatea, hori biltzeko segitutako prozesuarekin batera, emandako informazioaren gainean laginak eginez.
- Informazio ez-finantzarioaren egoera-orria betetzea eta horretan jasotako edukia, hain zuzen eduki horren osotasuna, zehaztasuna eta egiazkotasuna ziurtatzearen.

Konklusioa

Aurrekoan oinarriturik, gure iritziz inolako ebidentziarik ez dago, pentsatu ahal izateko informazio ez-finantzarioaren egoera-orria, 2019ko otsailaren 25eko IEFE, KUTXABANK TALDEAREN JASANGARRITASUN MEMORIA 2018 INFORMAZIO EZ-FINANTZARIOAREN EGOERA deitu eta 2018ko abenduaren 31n amaitutako urteko ekitaldiari dagokionean jaso, ez denik KUTXABANK TALDEAK gizarte erantzukizunari dagokionez eta 11/2018 Legearekin bat garatzen duen jardueraren adierazpen zehatza, ingurumen eta gizarte gaiei eta langileekin lotutako alderdiei dagokienez, horietan sarturik diskriminaziorik eza eta irisgarritasun unibertsala, giza eskubideen errespetua, ustelkeriaren eta eroskeriaren kontrako borroka, eta aniztasuna.

Madriilen, 2019ko otsailaren 28an